



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Enda Lur**
 Egilea / Autor: **Toti Martínez de Lezea**
 Saila / Colección: Narratiba
 Azaleko irudia / Imagen de cubierta: Aritz Albaizar
 ISBN / EAN: 978-84-9746-936-4
 Salneurria / Precio: 22 € (BEZ barne – IVA incluido)
 Orri kopurua / N° páginas: 528
 Formatua / Formato: 15 x 22 cm

Egilea / El autor

Toti Martínez de Lezea, Gasteizen jaio zen, 1949an, eta Larrabetzun bizi da, Bizkaiko herrixka batean. Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaile izan zen, eta itzulpen lanez gainera, gidoiak, hezkuntzako bideoak eta telebistarako haur saioak egin zituen, 1983 eta 1992 urteen bitartean.

1998an argitaratu zuen lehenengo eleberria: *La calle de la judería* (*Judu-kale*). Haren ondoren etorri ziren: *Las torres de Sancho* (*Antsoren dorreak*), *La herbolera* (*Kattalin*), *Señor de la guerra*, *La abadesa* (*Maria Galanta, abadesa*), *Leyendas de Euskal Herria* (*Euskal Herriko leiendak*), *Los hijos de Ogaiz* (*Ogaiztarrak*), *La voz de Lug*, *La Comunera*, *El verdugo de Dios*, *La cadena rota* (*Hautsi da katea*), *Los grafitis de mamá*, *A la sombra del templo*, *Brujas* (*Sorginak*), *La Brecha*, *El jardín de la oca*, *Placeres reales*, *La flor de la argoma* (*Otalorea*), *Perlas para un collar* (*Ángeles de Irisarriekin batera idatzitakoa*), *La Universal*, *Veneno para la Corona* (*Pozoia Koroari*), *Mareas* (*Urak dakarrena*) eta *Itahisa*.

Lana / La obra

ENDA LUR iraganera egindako bidaia da, gizon-emakumeek erraldoietan eta dragoietan sínesten zuten garai ilun batera; garai gogorra eta erreala zen, eta garai hartako leinuek, gainera, beste lurretatik iritsitako inbaditzaileei aurre egin behar izan zieten.

Endara neska gaztea gailentzen da eleberri honetako pertsonaien artean. Bide luzea egin beharko du ibar galdu batetik Mendi Sakraturaino, han bizi baita Amari Ama Lurra. Bitartean, lhabar eginahalean saiatzen da borrokalari handizat onar dezaten, Garr eszeptikoak ahaztu egin nahi du nola erraustu dituzten bere hiria eta bertako biztanleak, Ozen jentila zain dago noiz helduko bere gurasoez mendekatzeko unea, eta Enda Lurrez jabetzeko planak ari da Baladaste duxa egiten.

Horiek eta beste askok pertsonaia sorta harrigarria osatzen dute. Atzo bezala, gaur ere sinesgarriak gertatzen dira guztiz, borroka bizian leialtasunaren eta traizioaren, askatasunaren, justiziaren eta morrontzaren artean. Toti Martínez de Lezea idazle ospetsuaren eskutik emana dago Enda, eta, berriz ere, bere irakarleak harrিতuta utziko ditu, erregistro desberdín, berrizale, eta dudarik gabe, erakargarri batekin.

🌀 Izena duenak, izana du 🌀

